



TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Ostirala
2010-06-11

VIII. URTEA 2.024. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Amaitzear Berastegiko eta Leaburuko azpiegituren hobekuntza

HIRIGINTZA Berastegin Eldua auzora joateko errepidearen bihurtzea eta saneamendua berritu dituzte

TEILATUA Leaburun pilotalekuko teilatua konpondu dute eta ekialdeko zein ipar-ekialdeko paretak berritu 6



1.500 bat pertsona bildu ziren atzoko manifestazioan. A. IMAZ

Gaur ere greba egingo dute metalgintzako langileek

TOLOSA Manifestazio jendetsua egin zuten atzo 'Hitzarmenaren alde' lelopean 5

Ibiur urtegiko ura edaten dute jada Tolosako eta Ibarako bizilagunek

BALIARRAIN Abuzturako Tolosaldeko herri guztiak izango dute ur hau; kalitate «askoz hobea» duela dio Ur Zerbitzuetako arduradunak 5



Urtegiko azaleraren %60a dago beteta une honetan. E. MAIZ

MARTIN ZABALA SAGARDOGILEA

«Sagardoa garbia, zapoetsua eta edan erraza da»

ADUNA Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatzen duen herrialdeko sagardo onenaren saria eskuratu berri dute Zabala sagardotegikoek 4



L. GOROSTIDI

INPUNITATEA

=

ARMA SUNTSITZAILEA

Facebook-en:
Plataforma de Guipúzcoa
con Palestina

Tolosako Vascongada Ehorztetxearen irudi berria

Egoitza » Kondeko Aldapan aurkitzen da Vascongada Ehorztetxea, 09:00etatik 21:00etara zabalik.

ERREDAKZIOA

Funeraria Vascongada Ehorzketak erreferentzia izan da azkenengo mende laurden honetan Tolosaldeko eskualdean. Orain aurpegi berriak elkartu zaizkie gainera: Tolosako Asun Martinez eta Merte Goya.

Lantalde berria

Kondeko Aldapako lan taldera egokitu dira Asun eta Merte, familiak behar duen goxotasuna eta gertutasuna eskaintzeko helburuarekin. Estereotipoak hautsiz, bi emakume ausart hauek kalitatea eskatzen duen lan honetara egokitu dira. Eta bai azkar egokitu ere. Aurki, ondo egindako lanaren Kalitate Ziurtagiria ateratzeko bidean izango dira.

Ezin ahaztu gaitezke, urteetan Tolosaldean zerbitzua eskaintzen aritu diren Joseba Iruretagoiena, Xabier Lizarralde eta Fran Irigoien babesa eurekin dutela. Beti izan den moduan, Vascongada Ehorzketak-eko kideek talde bezala lan egiten jarraitzen dute.

Itsura berria

Betiko tokian, Kondeko Aldapan, xarma bereziarekin eraberritutako instalazioak aurki ditzakegu. Hemen ere bi emakume hauen eskua agerian gelditzen da. Etxean bezala sentiarazteko, espazio hotzetatik urrun, abegitasuna nagusi da Vascongada Ehorzketaren eraikinean. Autoak uzteko ere ez dago arazorik, aparkaleku pribatua baitu Beilatokiak, nahiz eta Tolosako erdigunetik hain gertu egoiteak oinez joateko aukera ere ematen duen.

25. urteurrena gertu izango du aurki. Denbora guzti honetan betiko baloreetan oinarritutako etengabeko zerbitzua, berriztaturik dator: pertsonengan oinarrituriko zerbitzua; taldeko lana; gertutasuna; arreta azkarra; xehetasun guztiak zainduz eta batez ere, enpresako lankideei etengabeko formazioa eskainiz.

Jendeari laguntzen

Vascongada Ehorztetxean sartzeko, lantaldeko kideek harrera adeitsua eskaintzen dute. «Sendiari laguntzeko administrazio lan guztia gure esku gelditzen da. Egin beha-

rrero guztiaren ardua hartzen dugu. Horretaz gain, jendearekin hitz eginaz lasaitzen saiatzera gara. Gertuko norbait hiltzen zaigunean, sentimenduak azaltzeko bakoitzak bere modua izaten du eta entzutea edo lasai uztea ere oso garrantzitsua izaten da».

«Eduki dugun lanik gizatiarrena da. Sendiarekin harreman oso berezia sortzen da»

Axunek eta Merteek lanaz hitz egitean, gauza bat utzi nahi dute argi: «Eduki dugun lanik gizatiarrena da, zalantzik gabe. Sendiarekin harreman oso berezia lantzen duzu 24 edo 48 ordu horietan. Hunkigarria da». Jasotzen duten esker ona bigarren soldata dela ere aipatzen dute.

Une gogorrak izaten dira eta saminari aurre egiteko modua elkartasunean aurkitzen dute: «Jendeari laguntzeak balio izugarria ematen dio lan honi. Gure lana sendia etxean bezala sentitzea da, lasaitasun giroan».

Egun osoan zabalik

09:00etatik 21:00etara zabalik dago Vascongada Ehorztetxe be-



Funeraria Vascongada Ehorzketak-en egoitza Tolosako Kondeko Aldapa 5. ean aurkitzen da. HITZA



Joseba Iruretagoiena, Asun Martinez eta Merte Goya Ehorztetxeak dituen hiru geletako batean. HITZA

rritua. Kanpoan aurkitzen den parkeak asko laguntzen dio Ehorztetxeari. Sufrimendua sosenatzeko gomendagarri suertatzen da bertan itzuliak edo besterik gabe eserita egotea.

Zerbitzu zuzenen artean berriz, lehen aipatutakoekin batera, lorategia aurkitzen da. Sendiak egoitza

bertatik aukeratu ditzake loreak. Lurperatzeko edo errausteko erabakiaren aurrean, baliabide egoikiak ditu Vascongadak.

Kontuan hartu behar da, Tolosako egoitzarekin batera Donostian, Hernanin, Errenterian eta Pasaian ere egoitzak dituela Vascongadak. Laster, Villabonan ere

zabalduko dute berria. Errekaldeko egoitzarekin adibidez, errausteko erantzutasun handia lortu dute.

Funeraria Vascongada Ehorzketak-en bezeroentzako zuzeneko telefono zenbakia ondorengoa da: 943 67 00 40. Fax zenbakia berriz, ondorengo: 943 67 07 19.



Zerbitzu anitz eskaintzen ditu egoitzan bertan Vascongada Ehorztetxeak. HITZA



TAKE Orbela saskibaloit taldeko kideak. HITZA

TAKE Orbela mailaz igo da denboraldi «bikaina» burututa

Kirola » Ligako txapeldun izan da, eta ondorioz hurrengo denboraldian goragoko mailan jokatzeko txartela lortu dute.

ERREDAKZIOA

TAKE saskibaloit klubak maila ona erakutsi du, beste behin ere, denboraldi honetan. Lortu duen arrakastetako bat TAKE Orbela taldearen eskutik etorri da, izan ere, ligako txapelduna izatearekin batera, mailaz igozea lortu dute.

Urte asko etagero, Tolosako saskibaloiak bigarren senior talde bat izatearen apustua egin zuen denboraldi hasieran. TAKEtik azaltzen dutenez, Orbela tabernaren babesa izan duen talde honen helburua «harrobitik datorren junior kopuru altuari lekua egitea eta igotzea» izan da. Taldearen lehen urte honetan gazte eta betaranoen nahaste bat egitea erabaki zuten, 18 eta 38 urte bitarteko 12 jokalariz osatuz.

Hasieran oso heterogeneoa ziru-dientaldea «primeran» egin du lan. Lehen fase «zail» baten ostean,

azken unean lortu zuten igoera faserako txartela baina behin bertan zirela, mailako «talderik indartsuena» izan da TAKE Orbela. «Taldea kideek ondo ezagutzen zuten elkar eta era ezin hobean jokatu zuten, igoeraz gain ligako titulua eskuratuz». Kike betaranoaren gidaritzapean eta Kaieten laguntza puntualekin, Elus, Imanol eta Iker gazteek kalitatezko aurrerapausoa eman dute, datorren denboraldian beste maila batean lehiatzeko aukera irekiz. Arrakasta honenkin borobildu du TAKEk bikaina izan den denboraldi.

Atez atekoarekin Tolosan zaborra areagotu egingo dela dio PSE-EEK

Gizartea » Aduna, Anoeta, Alegia, Amasa-Villabona eta Ikaztegieta herriarrek Tolosan botako dutela zaborra uste dute.

ERREDAKZIOA

Oscar Renedo Tolosako Udaleko PSE-EEren zinegotziak azaldu duenez, «arriku handia» dago Tolosan zaborraren kopurua handitzeko Amasa-Villabona, Aduna, Anoeta, Alegia eta Ikaztegieta atez ateko bilketarekin hasten badira. Bere ustetan, «atez atekoare-

kin hasten badira, herriarrek lanera doazela autoan zaborra ematen ikusiko ditugu, Tolosan gelditu, eta bertako edukiontzietan botatzeko». Horregatik, sistema hori «oso kaltegarria» izango dela Tolosarentzat dio Renedok.

Halaber, atez ateko bilketa sistema «gatazkatsua» da Renedoren arabera. «Ezin ditugu herriarrek aztoratu, eta sistema horrek eragin zuzena du euren bizi kalitatean, bai jarri nahi duten herrietan, bai eta Tolosa bezala ondoko herrietan ere».

Tolosa «estualdiarako edukiontzi» bilakatuko dela uste du

Renedok, eta hori dela eta «kezkatuta» daude. Hain zuzen ere, Astigarragako alkatearen hitzak gogoratu ditu: «Atez atekoa Hernanin martxan jarri zenetik zaborra Astigarragan %11 igo dela salatu du, 158 tonelada zabor gehiago; ondorioz, Astigarragako bizilagunek euren ez den zaborrarentzat 60.000 euro gehiago ordaindu beharko dute, eta guk ez dugu hori mahi Tolosarentzat». Gainera, Renedoren arabera, «sistema bat edo beste erabili zaborrak bide berera joango dira, hau da, birziklatu daitezkeen birziklatuko da, eta gainerakoa erraustegira eramango dute».

Gidariak behar dira dokumentazioa eta balijak banatzeko. Postu finkoak erakunde publikoetan. Lanaldi jarraia.

610-71 97 82

Lan publikoetarako zaintzaileak, igeltseroak, arotzak, argiketariak, eta mantenurako langileak behar dira. Lanpostu finkoak.

600-97 74 95

Telefonistak/harreragileak behar dira eraikin publikoetarako. Postu finkoak. Lanaldi jarraia.

607-25 42 40

Errepideen katalogoan sartu dute Izaskun auzora doan bide berria

Azpiegiturak » Maiatzean zabaldu zuten errepide berria; N-1etik Asuncion klinikara joan daiteke hirigunea zeharkatu gabe.

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako Errepideen Katalogoan sartu du N-1 errepidetik Izaskun auzora doan bide berria.

Diputatuen Kontseiluaren onarpenarekin Errepideen Katalogoan sartu berri duten errepidea maiatzean zabaldu zuten. 0,8 kilometroko luzera du, Tolosa iparraldeko N-1en loturatik hasi eta Asuncion klinikatik gertu GI-3421 Izaskungo errepidearekin batzen da. Beraz, N-1etik Asuncion klinikara zuzenean joateko aukera ematen du, Tolosako hirigunetik pasatu gabe. Proiektuak 2,5 milioi euroko aurrekontua izan du.



Pasa den hilabetetik dago erabilgarri errepide berria. IT.

Laburrak

Goyenetxe fundaziokoan lanak GKO galerian

KULTURA » Datorren astelehenera aurrera, Gureak taldeko Goyenetxe fundazioko eguneko zentroko kideek urtean zehar egin dituzten lanekin erakusketa osatuko dute GKO galerian. *Te ha gustado?* izena eman diote, eta aste osoan zehar egongo da ikusgai.

Elikaduraz eta minbiziaz hitzaldia, astelehenean

GIZARTEA » Datorren astelehenean, Minbiziaren Aurkako Elkarteak Tolosan ireki berri duen bulegoan (Emeterio Arrese, 2) *Dietetika eta elikadura prozesu onkologikoetan* tailerra izango da, 18:00etatik aurrera, Nahikari Usarraga nutrizionistaren eskutik. Herriar guztiak irekia da.

Laskorainen Ikastolaren Eguna izango dute etzi

HEZKUNTZA » Ikastolaren Eguna ospatuko dute etzi Laskorainen. Urterto bezala, ekintza ugari izango dituzte: 10:30ean bizikleta ibilaldia izango dute; ondoren, hamaiketakoa emango dute Usabalen eta umeentzat joku ezberdinak egingo dituzte: herri kirolak, ginkana...; 12:00etan, HHko ikasleek prestatuturiko jaialdia izango da ikusgai, eta jarraian, abesbatza, antzerkia eta perkusio tailerrekoen emanaldia izango dituzte. Gurasoen prestatuturiko paella izango dute bazkalatzeko, eta bazkalostean, Kazkabarrako begiraleen eskutik tailerrak eta Kikikokomoko pailazoaren emanaldia izango dute. Dantzaldia ere izango da, eta Realaren partida ikusteko aukera ere emango dute Ikastolaren Egunean.

Bestelako herriko produktak, etolosaingandik zure eskura

Egin esan, ez daukat onura handia. Internet bidez erosteko, egitea, baina BERRIA. ezarritan lagun webgunean erosteko, erosi, erosi, eta gurea erosi! bai produktua, eta bai zerbitzua.

27,00€
Erosi: 1000g
Erosi: Herriko
Bakoa
4 Herriko

25,00€
Erosi: 1000g
Erosi: Herriko
Bakoa
4 Herriko

Bere produktua ezin duen arren, beste lagunak dituzte Herriko Plaza.

www.ostialdeherriko.com
Herriko Plaza

www.ostialdeherriko.com
Herriko Plaza

E Elkarrizketa**MARTIN ZABALA** » Sagardogilea

«Sei finalisten arteko lehia estu-estua izan zen; denak oso parekoak ziren»

Aduna » Larunbatean, Gipuzkoako sagardo onenaren txapela eskuratu zuen Adunako Zabala sagardotegiak. Aurtengoarekin lortzen duten hirugarrena da.



L. GOROSTIDI

ENERITZ MAIZ

Gipuzkoako Foru Aldundiak, bederatzigarren urtez jarraian antolatuta du Gipuzkoako sagardorik onena aukeratzeko txapelketa. Aurten 27 sagardotegik parte hartu dute eta Adunako Martin Zabala sagardogileak jaso du Gipuzkoako sagardorik onenaren saria. 2004. eta 2006. urteetan egin bezala, larunbatean hirugarren txapela eraman zuen Adunara. Bera-ekin hitz egin dugu lortutako txapelaren inguruan.

Zorionak. Gipuzkoako sagardo onenaren saria jaso duzu. Pozik lortutakoarekin?

Bai oso pozik jasotzen dira eta eskertzeokoak izaten dira, gainera.

Hogei eta zazpi parte hartzailetatik zurea izan da aukeratua.

Bai. Guztietatik, sei pasa ginen finalera. Eta seiren artean apustu estu-estua izan zen. Denak oso parekoak izan dira.

Honelako emaitzarik espero ez nuen?

Espero, espero, ez dakit, nahi izaten duzu, behinik behin. Baina finalera sartuz gero ere gustura gertatzen zara.

Baina txapela lortuta gusturago. Zer du zure sagardoak besteengandik ezberdina?

Ezberdin zer duen? Hori nik ere ez dakit. Ahalik eta sagarririk hobereana lortzen saiatzen gara eta gero, ahalik eta ondoen zaindu eta lantzen dugu. Baina hortik aurrera jendeak gustukoan zer duen ez dakit. Hori jendeari galdetzea izango da hobereana.

Nola ikusi dituzu aurkariak?

Maila oso altua izan da. Lehen hiru postuetan bi puntuko aldearekin baino ez gara geratu. Hortik atera kontuak. Lehenbizikoak bigarrenari puntu bat eta bigarrenak hirugarrenari beste bat. Oso borrokatua izan zen. Eta sei sagardoak, oso edangarri eta gustagarriak ziren. Maila oso altua izan zen.

Nolakoa da sagardoa?

Nik uste dut sagardo garbia, zapo-retsua eta edan erraza dela.

Bertako sagarrarekin egiten du-zue?

Etxean bertan sagasti ugari dugu. Hamar bat hektarea inguru ditugu

eta gehienbat bertako sagarra erabiltzen dugu. Baina lehengo urtean bezala urte eskasa bada ez da posible, baina bestela bertakoa izaten saiatzen gara. Orain delabi urte adibidez, dena bertakoa izan zen.

Bederatzigarren urtea da txapelketa hau egiten dela. Urtero hartu duzu parte?

Bai, beti hartu dugu parte eta sei finaleraino egotea lortu dugu. Hortxe ibiltzen gara borrokan.

Eta bederatzigarren urte hauetan, hiru garaipen lortu dituzu, 2004. eta 2006. urteetan eta pasa den larunbatean.

Bai baina jendeak ere gehiago eskatuko digu eta konpromisoa ere bai. Bi aldetako txapela da. Nola esan, ematen dizuten txapela eta bestea zaindu behar duzuna.

Orain zein eragin du txapelak?

Lan gehiago eta zorrotzago egin behar duzula. Baina era berean lana eskertzeko beste modu bat da. Eta gustura egiten duzu lana. Berriz ere lanean jarraitzeko poza ematen dizu. Eta urtero saiatuko gara.

Txapelaz gain, 2.500 euroko saria ere gustura jasoko da...

Baita ere. Eta garai hauetan, laguntza txilikina ere laguntza handia izaten da.

Sagardoa edan nahi duenak.

Aldez aurretik deitu dezala eta bila etor dadila lasai.

G Gutunak**Fleming-eko guraso elkartetik, zorionak**

Villabonako Fleming ikastetxe-ko guraso elkarteak eskerrak eman nahi dizkio 2009-2010 ikasturte bukaerako festan zein antzerkian parte hartu duten ikasle guraso eta irakasle guztiei.

Laguntza hori gabe oso zaila izango litzateke horrelakorik antolatzeari. Kurso amaiera borobila izan da, Zorionak denoi!!!

Fleming Ikastetxeko Guraso

Elkartea. Villabona.

Jesusen Bihotza Ikastolatik, eskerrak

Villabonako Jesusen Bihotza Ikastolako 2009-2010 ikasturte amaierako jaialdia amaitu berri den honetan, eskerrak eman nahi dizkizuegu era batera edo bestera bertan parte hartu duzuen guztioi; bai antolakuntza lanetan aritu zaretenoi, baita azpiegiturak sustatu dituzuenoi ere. Espresuki aipatu nahi ditugu Guraso Junta, Irrintzi Elkarte, Behar-Zana Elkarte eta Villabonako Udala. Datozen edizioetan ere lagun izango zaituztegun. Jaso ezazue gure eskerririk beroena!

Jesusen Bihotza Ikastolako Zuzendaritza eta langileak. Villabona.

Udala Jubilatuen Elkarte berriko obrak hasteko zain dago

Villabona » Guztia prest dute obrak hasi ahal izateko. Hiru hilabeteko lana izango dutela aurreikusten dute.

E. MAIZ

Villabonako Udalak aurtengorako bideratutako Espainiako Gobernuaren Toki Inbertsiorako Estatu Fondotik jaso duen laguntza Jubilatuen Elkarte berria izango den lokala berritzeko baliatuko du. Jada guztia prest dute obrak hasteko.

600.000 euroko laguntza jaso dute eta diru horrekin, lokala egokitzeko proiektua, obrak eta hornikuntza egin nahi dituzte. Dagoneko proiektua egina dago eta obrak egingo dituen enpresa nor izango den ere esleitu dute. Udala, obrak noiz hasiko zain dago eta obrak bukatzeko hiru hilabete beharko dituztela aurreikusten dute.

Lokal berria Aldude kalean

Aurreko legealdiko Udal ordezkariak, Jubilatuen Elkarte berriko kideei, lokal berria izango zutela hitz eman zieten. Ondorioz, oraingo Udalak,



Aldude kaleko etxebizitza baten baxuan kokatuko da. E. MAIZ

aurreko Udalak emandako hitza berrituko da. Gaur egun Txerminen daude.

Salbadore urbanizazioan, etxebizitza berriak egin zituzten eta hauetako baten baxuan kokatuko dute elkarte berria, Aldude kalean hain zuzen ere.

261,80 metro karratu

Lokalak, 261,80 metro karratu erabilgarriak izango ditu. Bertan, bi zati izango dira. Alde batetik, pu-

blakoa eta bestetik, pribatua. Publikoan, taberna-jatetxea, sukaldaria eta komunak kokatuko dira. Gune pribatuak berriz, irakurketa eta atsedena gela, ile-apaindegia, bulegoak, biltegia eta gelak bilduko dituzte.

Beraz, hilabete gutxi barru, Villabonako jubilatuek, guztiz berri-tutako elkarte izango dute. Diru-laguntza dela eta, Udalak, urtea bukatzerako obra guztiak bukatu beharko ditu.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Donostiako Orfeoiaren doinuak

Alegia » Bihar, 20:15ean herriko elizan eskainiko du kontzertua, Donostiako Orfeoiak. Sarrera dohainik izango da.

ERREDAKZIOA

Urrezko ezteiak betetzen dituzten aurten Txintxarri Abesbatzakoek. Ospatzeko, ekitaldi ugari antolatu dituzte urte guztian zehar, musika beti oinarri hartuta.


Bihar, bisita berezia jasoko dute Alegian. Berezia eta garrantzitsua, aldi berean, Donostiako Orfeoia etorriko baita elizan kontzertua eskaintzera.

50. urteurrenoko ekitaldiak antolatzen ari zirela «Orfeoia gonbidatzea otu» zitzaiela aipatu dute abesbatzako kideek. «Gipuzkoako Diputazioarekin, hitzarmen bat du Orfeoiak bertako herrietan kontzertuak emateko. Eskaera egingenien eta onartu egin zuten».

Kontzertua dohainik

Hitzordua arratsaldeko 20:15ean da, Joan Bataiatzailea Deunaren elizan. Kontzertua irekia izango da, dohainik.

90 ahotsek osatuko dute taldea eta Jose Antonio Sainz Alfarok zuzenduko du. Organoan, Gerardo



Donostiko Orfeoiaren emanaldian, abesti ezagunak entzungo dira Alegiako elizan. HITZA

Rifonek lagunduko die. Kantatuko dituzten obra gehienak erlijio abesti ezagunak dira. Hala nola, Aita Madiranen *Aita Guria*, Jose Urruñelaren *Maitea nun zira*, Haendelen *Alleluia* edota Javi Bustoren *Ave Maria*.

Alegiako elizara hurbiltzen direnek, kalitate handiko kontzertua entzungo dute. Donostiako Orfeoia mundu mailan puntako abes-

batza baita. Guztira, 170 pertsonak kantatzen dute. 1897an sortu zen eta sari ugari jaso ditu. Urtero, nazioarteko agertoki garrantzitsuetan emanaldiak eskaintzen dituzte.

Txintxarri Abesbatzaren mende erdia

1960an eman zuten lehen kontzertua, Joxe Sagastiren zuzenda-

ritzapean. 1990etik gaur arte, Garbiñe Orbegozok hartu zuen zuzendaritzalana.

Gaur egun, 14 eta 65 urte bitarteko 40 lagunek osatzen dute Txintxarri abesbatza. Gipuzkoan hamar bat abesbatzak lortu dute 50 urte betetzea.

Hurrengo kontzertua, San Joan bezpera egunean emango du Txintxarri Abesbatzak.

Laburrak

Ikastetxeko eta Intxurreko, kurso amaierako festa

ALEGIA » Kurtso amaierako festa antolatu dute biharko, San Juan ikastetxeko ikasleek. Arratsaldeko laurretan hasiko dira ekitaldiak, ikasleek prestatutako emanaldiekin: antzerkia, kantua eta sorpresak izango dira. Ondoren, merienda egingo dute jolastokian. Eguraldi txarra egiten badu, pilotalekuan bilduko dira. 18:00etan, Titiriteroek ikuskizuna emango dute. Iluntzean, 20:30ean, afari merienda egingo dute, bakoitzak, bere janaria eman beharko duelarik. Intxurre futbol taldekoek ere, denboraldi amaierako festa antolatu dute larunbaterako. 21:00etan plazan, urtero bezala, zahagiardoarekin ospatuko dute. Datorren astean jakingo da, Intxurrek mailaz igotzeko aukera duen.

Udalbiltzaren aurkako auziari elkartasuna

AMEZKETA » Udalbiltzaren aurkako auzia dela eta, epaiketaren berri emateko ekitaldiak antolatu ditu Amezketa Ezker Abertzaleak. Herritarrei deia egiten die, gaur, 19:30ean, balio anitzeko gelan emango den bideo emanaldira etortzeko. Era berean, 20:00etan udaletxe aurrean egingo den konzentrazioa joateko eskatu dute.

Ibiur urtegiko ura Tolosako eta Ibarrako etxeetara iritsi da

Baliarrain » Abuztuan, eskualdeko herri guztiek eta Andoainek, Ibiurko urtegiko ura kontsumituko dute.

ERREDAKZIOA

Astebete daramate Tolosako eta Ibarrako biztanleek, Ibiur urtegiko ura edaten.

Eskualdeko herriak eta Andoain urez hornitzeko, bigarren fasea da hau. Maiatzean hasi ziren lan hauekin, Alzo, Ikaztegieta, Anoeta, Villabona, Amasa, Zizurkil eta Asteasura, ura bideratuz.

Tolosako zonalde batzuk eta Ibarra harrapatzen ditu bigarren fase honek. Tolosaren kasuan, San Blasko ur biltegiak hornitzen dituen etxeetara bakarrik iritsi da Ibiurko ura. «Monteskun egiten ari garen ur biltegiaren lanak, abuztuan amaitzea espero dugu. Honek, Tolosako Alde Zaharreko etxeetara bideratuko du ura» azaldu du, Igor Izurrietak, Ur Zerbitzuetako arduradunak.

Azken fasean, uztailea erdialdean, Alegia, Irura, Amezketa, Aduana eta Andoainera iritsiko da Baliarraingo urtegiko ura.



Urtebetean %60 bete da Baliarraingo Ibiur Urtegia. ENERITZ MAIZ

Urak zapora eta kalitate hobea aldiz, ura araztegitik pasatzen da eta honek uraren kalitate ona bermatzen du» azaldu du Ur Zerbitzuetako arduradunak.

Berrobi, Berastegi, Elduain eta Amezketa araztegi propioak dituzte, baina Ur Zerbitzuak arduratzen da uraren kalitateaz.

Duela urtebete hasi ziren betetzen Ibiurko urtegia eta azaleraren %60 beteta dago dagoeneko.

aldiz, ura araztegitik pasatzen da eta honek uraren kalitate ona bermatzen du» azaldu du Ur Zerbitzuetako arduradunak.

Berrobi, Berastegi, Elduain eta Amezketa araztegi propioak dituzte, baina Ur Zerbitzuak arduratzen da uraren kalitateaz.

Duela urtebete hasi ziren betetzen Ibiurko urtegia eta azaleraren %60 beteta dago dagoeneko.



Metal arloko langileek lau egunetako greba egin dute. ASIER IMAZ

Metal arloko langileek protestan jarraitzen dute

ERREDAKZIOA

ELAK eta LABek pasa den hilabete bukaeran metalgintzan deitutako lau egunetako greba gaur amaituko da.

Atzokoa, hala ere, greba eguna izan zen baita eta Tolosan gainera, manifestazioa egin zuten. 1.500 lagun inguru bildu ziren *Hitzarmenaren alde* lelopean. Sindikatuek esandakoaren arabera, lau egune-

ko greba honek «babes zabala» izan du eskualdean.

ELA eta LAB sindikatuen aldarrikapen nagusia, Adegik (Gipuzkoako Enpresarien Elkarte) aldatu nahi duen hitzarmena lehengozan uztea da, aldaketa hauek langileen «eskubideak murrizten» dituelako. UGT eta CCOO sindikatuek ez dute greba deialdiarekin bat egin.

Berastegi eta Leaburun azpiegiturak hobetu dituzte

Hirigintza » Batean Eldua auzora joateko bihurgunea berritu dute, eta bestean, pilotalekuko teilatua konpondu dute.

ERREDAKZIOA

Azken asteetan lanean aritu ostean amaitzeaz dituzte azpiegiturak hobetzeko lanak Berastegi eta Leaburun.

Berastegin, Gi-2130 errepidean, Eldua auzora joateko bihurgunean aldaketak egin dituzte. Alde batetik, lehen zeuden errailak estutu dituzte, eta hirugarren bat egin. Bertan, stop bat jarri dute, Eldura joan nahi dutenentzat. Honez gain, autobusentzat bi geltoki ere jarri dituzte eta espaloiak eta baranda indartu. Urbikolan enpresa izan da lanak burutu dituenak.

Aitor Lizartza alkatearen hitzetan, berrikuntza hauek bi helburu nagusi dituzte, «alde batetik, errepide horretako segurtasuna hobetzea eta bestetik, Eldua auzoari indarra eta garrantzia ematea». Izan ere, alkateak azaldutakoaren arabera, «inguru horretan, beste autoak aurreratzeko aprobetxatzen zuen jende askok, eta ondorioz, istripu asko izaten ziren».

Bigarren asmo horri lotuta, Espainiako Gobernuaren Toki Inbertsiorako Estatu Fondoarekin, auzoko saneamendua hobetu dute. Bigarren honen aurrekontua, orotara, 114.000 euroakoa izan da, eta jada amaitu dituzte lanak. Elduarako bihurgunea hobetzearen proiektua 2006 urte

amaieran eta 2007aren hasieran sortu zen. Baina, azkenean, arazo ekonomikoak medio, ezin izan zen burutu. Orain berriz, aukera sortu da eta jada errealitate bihurtzeaz da orduko proiektua. Duelabi hila-bete inguru hasi ziren lanekin, eta egun gutxi barru prest egongo da.

Udala eta Foru Aldundia iritsita-ko adostasunaren ondotik, bigarren hau arduratu da lanen kostu gehienaz. Dena den, inguru horretako lurrak Udalak kudeatu ditu, hau da bera arduratu da jabeekin adostasunera iristez.

Leaburuko pilotalekuak «txapela» berria du

Leaburun, Espainiako Gobernuaren Toki Inbertsiorako Estatu Fondoak emandako diruarekin, pilotalekuaren teilatua konpondu dute.

25 urtetik gora zituen frontoiko teilatuak, eta Mari Kruz Agirre alkatearen esanetan, «itogin ugari zituen, eta euria egiten zuen guztietan, frontoi barrura sartzen zen ura». Hori dela eta, hainbat urtetan, konponketa txikiak eginez joan dira.

Leaburu bertakoa den Lau Hai-zetara SL izan da berrikuntza lanak egin dituenak. Obraren kostua gutxi gorabehera 41.900 euroakoa izan da.

Honela, teila berria jartzeaz gain, isolatzaile bat ere jarri dute, teilak mugituz gero ere, barrura urik ez sartzeko.

Gainera, pilotalekuko ekialdeko eta ipar-ekialdeko paretak ere berritu dituzte, bertan zeuden burdinak kenduz.



Berastegin, errepidean egin dituzte berrikuntzak, eta Leaburun, pilotalekuan. E. EZEIZA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORTZETXEA
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40
ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

«Tolosaldea, kapitalismoa bezala, krisian»

Gizartea » Tolosaldeko Herria Abian eskualdeko «erradiografia» osatzen ari da; gaur giza katea egingo dute INEMetik abiatuta.

R. CALVO

Aldaketa soziala bultzatzeko sortutako Tolosaldeko Herria Abian plataformak pixkanaka urratsak ematen jarraitzen du. Oraindik ere zehazten jarraituko duten programa egin dute eta ekitaldi desberdinak ere antolatzen dituzte. Esate baterako herenegun Alberto Friasen hitzaldia izan zen eta, gaur bertan

19:30ean, Tolosako INEMeko bulegotik giza katea egingo dute. Era berean, bihar Bilbon 17:30ean E.L.A., LAB, ESK, STEE-EILAS, ESK, EHNE eta Hiru sindikatuek deituta *Murrizketarik ez, euskal langileok geure etorkizunaren jabe* lelopean izango den manifestazio-rajoteko deia ere egin dute.

Horiek horrela, Alberto Friasen hitzaldian Tolosaldeko egoeraren zertzelada batzuk ere eman zituzten plataformako kideek. Izan ere, eskualdean langabetu kopuruak nabarmenki egin du gora eta Lan Erregulazio Txostena indarrean duten enpresen kopurua ere asko



Alberto Friasen hitzaldia izan zen herenegun Kultur Etxean. R. CALVO

Euskal Herri osora salto eginda, gainera, enplegua dutenen herena baino gehiagok soldata baxuak (1.000 euro edo gutxiago) dituzte, Barne Produktu Gordina *per capita*, hau da, Euskal Herriko pertsona bakoitzari tokatzen zaion aberastasuna, 33.000 eurokoa den bitartean. Era berean, Tolosaldeko Herria Abianek egungo etxebizitza politikara ere salatzen du. «Etxebizitza eskubide bezala ulertu beharrean, negozio aukera bezala

ikusten» baita, eta Tolosari lotuta Voith-Gorostidiko «pelotazo urbanistikoa» edota San Esteban auzoan 1.000 etxebizitza egiteko proiektua aipatzen dituzte, zeina geldirik egon den urte hauetan. «Ez ote da, lehendabizi Voith-Gorostidiko proiektua aurrera atera nahi zutelako? Ez ote da, kolpetik etxebizitza asko merkatura ateratzen badira, prezioajatsi daitezkelako?», galdetzen dute. Ekologiaren gaia ere ari dira az-

tertzen plataforman. Batetik, Abiadura Handiko Trenaiapuzten dute, «inpaktu bisual handia, gehiegizko elektromagnetismo eta soinua, lur azpiko uren mugimendua...» sortuko baititu, «suposatzen duen dirutza» ahaztu gabe. Nekazaritzari dagokionez, «komunikabideetan oso gutxitan agertzen dena» euren ustez, «jendartearen eta herrien hiritartze prozesuaren ondorioz, geroz eta urrunago gaude naturatik» diote. «Lehen sektorea, Euskal Herriko ekonomia funtsezko atal bezala aztertu beharko genuke, elikadura subiruzta eredu bezala hartuta. Argi izanik pertsonen osasuna eta gure ingurua kutsatzek dituen ondorio negatiboak» diote. «Elikagai osasuntsuak behar ditugu jendarteari jaten emateko». Plataformak eginko «erradiografia» askoz ere zabalgago da, eta osorik irakurri nahi duenak www.tolosaldeko-hitza.info-n, topatuko du, berri honekin batera dagoen loturan.

tolosaldeko hitza.iragarkilaburrak.com

Higiezinak
ETXEBIZITZAK
SALDU

Tolosa. Voith-Gorostidiko eraikuntza berria etxebizitza salgai (75m²). Promotorea bere burua zuzentzeko salmenta. Sukalde eta Zikloan ekipatuak, egonaldi handia eta Zingira. Argitua. 2 terraza eder eta baita trasteroa ere. Ganga edonagari. Prezioa salmenta. 658-72-52-88.

Tolosa. Lau logela, bainugelak, sukalde, sala, eta terraza kopartitua. Gela gutxiak, bainugela berria, leihodunak dira. Etxean aurrekalean jardina dute eta ukaldetan nahi deneko arabilgari dituztena, gutxi-500m. Oso eguzkitua. Tolosen bertan kokatuta (Españolezondoa). Hurrengoan telefonoa: 605-96 64 32.

LOKALAK
SALDU

Iruña. Lokala Iruñan, Leak Bar ibaian, N-1 ondoan. TB m² eta 78.000 euro. Interesatuek deitu 645-72 19-47 edo 635-20 17 09 telefono zenbakira edota idatzi gura restanatu@yahoo.es helbidera.

Lana/Ingegnierak
LAN EKINAK
PERTSONAK ZAINDU

Tolosa. Tolosako bihera gara, ikasle eta ardurak. Urtan haurrak zaintzeko prest gaudu, ustalia edo abuztuan eta gaur eta amatekideak. Zikloa eta espeziezkoak. Telefonoa: 675-71 55 97.

Tolosa. Urtan amaia zaintzeko prest egongo nintzateke. Esperientzadun neska euskalduna naiz. Kontakua jarri nahi izanez gero deitu telefono honetara: 680-34 29 58.

VIllabona. Ingegnierak

Masak ematen dira Gipuzkoan mailan. Tolosa edo bakaria. Maila ezberdinak. Inakade itxialduna. Telefonoa 664-76 02 68 eta posta elektronikoa: continente56@hotmail.com.

Bilguneak
SISTEMAGARRIAK
SALDU

Elizcamp autokarabana. Eliz Camp autokarabana salgai, 2006 urtekoa, 34.000 kilometro. Oso egoera onean. Ikusi nahi duzuek, deitu inongo longromozurik gabe 652-73 85 62 telefono zenbakira.

ERRENTAN HARTU

Autokarabana errentan hartuko genake. Famili batok, autokarabana bat alokatu nahiko luke, ustalaran 10etik 24era (gutxi gabeletera). Interesatuak, deitu: 675-71 30 73 telefono zenbakira.

KANPOKOAK
GUREAN
Higiezinak
ETXEBIZITZAK
ERRENTAN EMAN

Gasteiz. Ingegnierak pisua alokatzen da Gasteizen. Interesatuak, deitu 945-30 01 30 telefono zenbakira.

Lana/Ingegnierak
LAN EKINAK
PERTSONAK ZAINDU

Lasarte-oria. Neska eskaiztekoak/aurerak edo herriko zaintza. Egoera on gaita arnatekide (gaita/leia hebe). Telefono zenbakia: 607-88 13 91.

Akta/Kinola
KIDOK
HARTU

Eskualdeko herriak
Arnasateko Gaztetxean. Arnasateko Gaztetxean egiten ari garen rolandomotako presak behar ditugu. Presak izatez

gero jar zaitzue gurekin kontaktura arnasateko-gaztetxe@gmail.com helbidera mezu bat bidali.

SEAT
auto/ ARTIBAI /I.
SEAT - AUDI - VOLKSWAGEN
SUZUKI VITARA TD
SEAT LEON TDI 150 zaldé
SEAT LEON TDI 140 zaldé
FORD SCORD TURBO DIESEL
AXXAN kametik galdako autoa
Itxurka autoa 40 • Maritima-bermeñ Tel. 94-616 77 11 / Fax: 94-616 77 69

Salbide
SALBIDE
Higiezinaren zerbitzuak
Bikua kalea 4 • 20800 Zeanuri
Tel. 943-01 07 00 • Fax: 665-71 85 96
www.tolosalabide.com

Altzarrazabal. 3 logelako etxebizitza. 30 metro luze dute trastereluekin. Oso prestu onean. 31.000.000 pezeta.

Zarautz. Aden Portu. Logela bakoitza eban handia. Altua eta bista ederrak. Trastereluek eta ingurua. 47.000.000 pezeta.

Zarautz. Ieta plaza. 3 logelako etxebizitza. Egoera onean. Bista ederrak. 58.000.000 pezeta.

Zarautz. Vista Alegre. 2 logela ditu. Terraza handia. Egoerazkoa. 49.500.000 pezeta.

Zarautz. Zela Ondo. polikromatagiam aurten. 3 logelako etxebizitza. Trastereluekin. Sartzeko moduan. Eguzkitua. Oso prezio onean! 47.000.000 pezeta.

Zestoa. Avros beheak. 2 logelako etxebizitza. 28.000.000 pezeta.

Getaria. Herrietara kalea. 3 logela eta 2 bainugelako etxebizitza. Trastereluekin. Egoera onean. Presio onean! 42.500.000 pezeta.

Aiz. Eraikuntza berria. 3 logela, 2 bainugela eta 127m²ko terraza. 46.588.000. pezeta.

ARAMBURU Etxearen administratzailea Higiezinaren bulegokoa
943-65 17 13 / 677-46 09 16

ALONATZEKO
• Etxeak Amatenzen, San Francisco eta herren, Tolosan.
• Gasteiz San Francisco, Araba etorrk, herren eta Baster Zaldibian, erretako sukalariek.
SALGAI
• Etxebizitza. Lanarrendin, inguruguztatu, erretako sukalariek. San Francisco eta auzoan orok.
• Etxebizitza. Erretako sukalariek. Inuran. 20 milioi euro.
• Etxebizitza. Inuran. Sartzeko moduan. Etxebizitza onak.
• Gasteiz etxeak eta etxeak Amatenzen Tolosan. Batera eta Inuran.
• Lokala. Gasteiz plaza, Tolosan.

Etxebizitza
Higiezinak
9 4 3 - 4 4 6 1 6 6

ALONATZEKO
• Etxeak Amatenzen, San Francisco eta herren, Tolosan.
• Gasteiz San Francisco, Araba etorrk, herren eta Baster Zaldibian, erretako sukalariek.
SALGAI
• Etxebizitza. Lanarrendin, inguruguztatu, erretako sukalariek. San Francisco eta auzoan orok.
• Etxebizitza. Erretako sukalariek. Inuran. 20 milioi euro.
• Etxebizitza. Inuran. Sartzeko moduan. Etxebizitza onak.
• Gasteiz etxeak eta etxeak Amatenzen Tolosan. Batera eta Inuran.
• Lokala. Gasteiz plaza, Tolosan.

AM
288.485 €
Eraikuntza berria, baliabidea luze eta onak.
inmoebesogasti
BANAKETAK • ERRENTAN ARDURAK • ASIGURATZEK
Herriak: 13 • 20130 Villabona
Tel. 943-60 68 36 / Fax: 943-60 68 57
info@inmoebesogasti.net • www.inmoebesogasti.com

KULTOUR
BIDAIARIAK
KUMA KARTARA Higiezinak 50PEtik hasita (baserak, bizilagunak, hotelak, zirkuituak...)
ZURERDA Etxe osoak eta nekazaritza tenetok
BIDAIA HANDIAK PREZIO TXIKIETAN! (Jagokali inernazionalak ez dago baina)
• Italia. 12 egun 420€tik hasita
• Mysemar. 14 egun 980€tik hasita
• Norvegia. 12 egun 850€tik hasita
• Hegoafrika. 12 egun 750€tik hasita
• Mazonbika. 14 egun 890€tik hasita
• Belgaria. 13 egun 1.370€tik hasita (Jagokaliarekin)
• Orozio neurekin. Apartamentuak, auto eta ikastetxeak alokatuz, inuzerak, hotelak...
• Europa autobus eta karpintan
9 4 3 39 70 75 • info@kultourbidaiak.com
www.kultourbidaiak.com



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebecka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Teléfonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Alegia.** Datorren ikasturterako izen-ematea irekia dago Sutarriz dantza taldean 6 urtetik gorakoentzat, Kultur Etxean.

■ **Amezketeta.** Ekainaren 19an, larunbata, betizu jatea izango da Ugarteko frontoian. Urtero bezala, eguerdiko 14:00etan emango zaio hasiera. Bazkarirako txartelak salgai daude dagoeneko ohiko tokietan; helduek 30 euroren truke eskuratu ahal izango dute, gaztetxoek 15 euroren truke eta umeeke doan. Txartelak ekainaren 15era (asteartea) bitartean egongo dira salgai. Antolatzailea: Ugarteko elkarteak.

■ **Bedaio.** Ekainaren 20an Bedaio-ko IV. Mendi eta Bizikleta Martxa izango da. Aurten duatloia ere bai. Izena egunean bertan eman daiteke, edo www.bedaio.com-en sartuta eta 620 19 91 66 zenbakira deituta. Izena emateak 10 euro balio du (goizeko kafea, bukaerako pinxoak eta zozketa barne). Antolatzailea: Artubi kultur elkarteak.

■ **Berastegi.** Il. Lore, balkoi eta baratze txapelketa. Parte hartu nahi dutenek eman dezakete izena 943 68 30 00 telefono zenbakira deituta edo sebas@berastegi.com helbide elektronikora mezu bat bidalita. Antolatzailea: Kultur Batzordea.

■ **Tolosa.** TAKE saskibaloitza 3x3 saskibaloitza txapelketa antolatuta du ekainaren 19rako, alebin, infantil eta koadrilentzat. Parte hartzeko www.takesb.com webgunera jozteko nahikoa izango da.

■ **Villabona.** Hutsunea Betez elkarteak irteera kultural bat antolatuta du hilaren 20rako, Urederraren jaiotza ikusi eta Lizarran bisita gidatua eginez. Prezioak: 20 euro helduek eta 8 euro 14 urte bitarteko haurrek. Bazkaria norberaren kontu izango da. Izen-ematea (hilaren 15era arte) 943 69 05 05

(Begoña) edo 658 24 36 29 (Engrasi) telefono zenbakietan.

Hitzaldia

■ **Lekua.** Sagarra eta sagastia hitzaldia eskainiko du Jakoba Errekondok Aurrera elkarteak, 20:00etan, Kultur Astearen barruan.

Mobilizazioak

■ **Tolosa.** INEMeko bulegoetan 19:30ean *Tolosaldeak aldaketa soziala* lelopean giza katea.

Zinema

■ **Tolosa.** 80 egunean filma Leidor aretoan, 19:30ean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1.943 67 36 49.

■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5.112.

■ **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5.112.

» TELEBISTA

28 Kanala

08:30. Wazemank. **09:00.** Klipak. **09:30.** Tolosaldean Gaur.

10:00. Gipuzkoa kultura. **10:30.** Kafe terdi. **11:00.** Erloklip.

11:30. Tolosaldean Gaur. **12:00.** Eskuokin. **12:30.** Ur eta lur. **13:00.** Alex eta Alexis. **13:30.** Tolosaldean Gaur. **14:00.** Gipuzkoa kultura. **14:30.** Kafe terdi. **15:00.** Erloklip. **15:30.** Tolosaldean Gaur. **16:00.** Eskuokin. **16:30.** Ur eta lur. **17:00.** Alex eta Alexis. **17:30.** Tolosaldean Gaur. **18:00.** 28 Klip. **18:30.** Ilunpean. **19:00.** Mendialdean bizi. **19:30.** Tolosaldean Gaur. **20:00.** Kiroleroko. (*16:30etik 20:00etarako blokea lau orduko errepikatuko dute).

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.



Uraren inguruan landutakoa ikusgai

ANOETA Tolosaldeko ikasleek Agenda 21 programaren barruan uraren gaia landu dute ikasturtean zehar. Ikasleak herrian uraren egoera ezagutu eta uraren inguruko arazoez jabetzea izan da ekimenaren helburua.

Hala, Ingurumenaren Nazioarteko Egurenaren harira, landutakoa bildu eta erakusketa moduan ikusgai jarri dute Anoetako Herri Ikastolako gazteek Udala Kiroldegian. Igandera arte izango da ikusgai. HITZA

A Agurrak



Zorionak!

Unax Arozena Letamendia (Orio). Gaur 4 urte. Muxu bat familiaren eta aiton-amonen partetik.

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info
bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Asteegunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31180 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak: _____ • N A : _____

• Lanbidea: _____ • Jaioteguna: _____

• Helbidea: _____ • Herria: _____

• P.K: _____ • Tel.: _____

• Posta elektronikoa: _____

• Kontu zenbakia: _____